

JOSEBA BELAUSTEGI ▶ PASAIÁKO UDALEKO IDAZKARIA ETA LEGELARIA



O. MITXELENA

«Donostiak jurisdikzio bat du berez, legalki ez dagokiona»

Pasaia eta Donostia arteko mugen auzia konpontzeko lanean buru-belarri ari da Joseba Belaustegi, Udaleko idazkari eta legelaria

OLATZ MITXELENA

Urtea bete berri da Pasaiaiko alderdi politiko guztiek, udalerriaren sorreraren 200. urteurrenarekin bat eginez, Mugen Batzordea sortu zutela. Joseba Belaustegi (Pasaia Donibane, 1967), Pasaiaiko Udaleko idazkaria eta legelaria da. Berak topatu zuen Donostia eta Pasaia arteko auzia berpiztu duen dokumentua, udaletxeko artxiboa, beste auzi baterako lanean ari zela. Batzordearen urtebeteko ibilbidearen balantzea egin dio HITZARI.

Nola baloratzen duzu urtebete honetan egindako lana?

Egin dena baloratzeko hainbat gauza hartu behar dira kontutan. Batetik, talde politiko guztiak daudela, eta horrek moteldu egiten duela prozesua, beti ere batera ematen diren aurreapausoak sendagoak direla kontutan hartuz. Bestetik, kontutan hartu behar da, egokitze fase bat egon behar zuela. Gaia kokatzeko urtea izan da hau. Herritartze lana egin da. Partehartze foroa egin zen, eta gero, baita ere, barrutiz-barrutiko bilerak.

Parte-hartze foroetan jendeak emandako erantzuna nola baloratzen duzu?

Erantzuna oso ona izan zen, bai kopuruari dagokionez, baita kualitatiboki ere. Interes handia agertu zuen jendeak, eta lanerako prestutasuna baita ere. **Eta zertan ari da Mugen Batzordea une honetan?**

Barne arautegia zehazten ari dira, eta jendearen parte-hartzeak nolakoa behar duen erabakitzen. Bestetik, juridikoki, zein bide juridiko hartu aztertzen ari gara. Denbora honetan saiatu gara Foru Aldundiarekin bilera bat egiten juridikoki zein bide jarraitu behar den argitzeko, baina erantzuten ez digutela ikusita, auzitara jotzeko zein bide erabili aztertzen gabiltza orain.

Historikoa baino, auzia legala dela diozu. Azaldu ezazu baieztatzen hori.

Auzi historikoa ez dela esaten dudanean, zilegitasun historiko gehiago nork duen ez dugula eztabaidatuko esan nahi dut, gaia legalitatearen ikuspuntutik aztertuko dugula baizik. Altzako hainbat pertsonen arlo historikora eraman nahi dute

eztabaida, baina hor ez gara sartuko, beste herrien izaerak eta eskaerak errespetatzen ditugulako. Historiaz eta gaur egungo egoeraz, aurrerago hitz egiteko aukera egongo da, errealitate juridiko legal hori gaurko errealitate nola moldatu erabaki beharko delako. Hori bigarren fasea da. Lehenengoa, errealitate legala zein den aztertu behar da lehenik, orain eskizofrenia batean gaude delako. Hau da, Donostiak, berez du jurisdikzio bat, legalki ez dagokiona. Beti ere eztabaidagarriak diren gauzak dira, baina ez gara erotu, ez gaude funtsik gabeko ezer defendatzen. Horren erakusle da Donostiak ez duela ezer adierazi, eta izan du nahikoa denbora. **Auditz Akular operaziotik etekin ekonomikoa lortzea dela azken helburua ere esan izan dute.**

Ergelkeri galanta da hori. Guk gaiaren inguruan argitaratu dugun liburuaren hitzaurrean azaltzen dugu nola sortu zen istorio hau. Ez dago bestelako motibaziorik.

Liburuan azaltzen den arren, kontatu nola hasi zen guztia.

Lezo eta Pasaia auzi bat izan genuen, Donibane eta Lezo artean dagoen termikaren Jardun Ekonomikoetarako Zerga Pasaia kobratzen zuelako. Horren harira, Errotetako muga aztertzen hasi nintzen, eta mugen auzia beste lekuetan ere bazegolea ikusi nuen. Espedienteak eskatzen hasi nintzen, eta sententzia bat aurkitu nuen, XIX. mendearen bukarakoa, Vargas Ponceren autoa aipatzen zuena. Vargas Ponceren ebazpen originala eskatu, eta ondoren ikusi genuen Carlos V erregeak berretsi zuela mendietako isurialde guztiak Pasaia direla. Orduz geroztik gertatutakoa ikertu dugu baita ere, eta ikusi dugu ez dagoela aurrekoa ukatzen duen beste ezer. Guk genituen inpresioak berresteko Aranzadiren txostena eta EHUko katedradunen azterketa eskatu genituen.

Eta zuk topatutako dokumentu horiek egun ballorik ez dutela esaten dutenei, zer?

Hori baieztatze argudioak behar dituzte. Badaude Donostia eta Pasaia arteko mugaketa batzuk, orain defenditzen ari garena ukatzen dutena. Baina,

mugaketa bat ez da tresna juridikoa udalerriaren mugak eraldatzeko. Mugaketa egiten da, leku zehatzetan, muga zehazki non dagoen argitzeko, baina bestelako tresna juridikoa behar da lur eremu handietarako. Hori bera argudiatu zuen Aldundiak 1893. urteko erabaki batean. Gainera, XIX. mendean, Vargas Ponceren ebazpenari erreferentzia egiten dioten bi sententzia ditugu. **Donostia eta Pasaia arteko auzia den arren, Aldundiak zeresan handia du, ezta?**

Aldundiak finkatzen ditu udalerrien mugak, horregatik guk eskatzen diogu bere egintzetan haintzat har dezala errealitate juridikoa eta gure mugak, hau da, Vargas Ponce eta Carlos V.-aren aginduan ezarritako mugak. Baina gure kasua berezia da, ez dugulako ezer aldatu nahi, legalidadea aplikatu dadin baino, eta horrelakorik ez da aurreikusiten arau foralean. Horregatik zein prozedura jarraitu adierazi beharko luke Aldundiak. Ez digute erantzun, eta orain ebazpen bat eman dezan behartzeko zein estrategia juridiko erabili aztertzen ari gara. Abendurako ez badute erantzuten, auzitegira joko dugu.

Zein onura izan dezake honek pasaitarrentzat?

Pasaia oso itota dago gaurko mugetan, eta lur gehiago behar ditu. Behin legalitatea aplikatuta, negoziazio bat egon beharko luke Donostiarekin, eta epe bat ireki beharko da, urte asko iraungo duela, sententzia hori aplikatzeko. Pasaia bereganatu beharko litzuke lurra, baina baita baliabideak lur horietan zerbitzuak eskaini ahal izateko.

ALDUNDIA

«Zein estrategia juridiko erabili aztertzen ari gara. Abendurako ez badute erantzuten, auzitegira joko dugu»

PROZESUA

«Epe bat ireki beharko da, urteetako, sententzia hori nola aplikatu behar dugun negoziatzeko»

LEGALITATEA

«Errealitate legala zein den aztertu behar da lehenik, orain eskizofrenia batean gaudelako»